

XEDAPEN OROKORRAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4977

44/2015 EBAZPENA, azaroaren 4koa, Jaurlaritzaren Idazkaritza eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendariarena. Honen bidez, Salburua Kontserbazio Bereziko Eremu eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren gaineko zuzentarauak eta kudeaketa neurriak argitaratzen dira (ES2110014).

1/2014 Legegintzako Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartu zen. Dekretu horretako 22.5 artikuluan ezartzen denez, kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko eremuak (HBBE) deklaratzeko dekretuek aintzat hartu behar dituzte Eusko Jaurlaritzak halako eremuak kontserbatzeko onartutako arauak. Eusko Jaurlaritzak, halaber, aginduko du eranskin gisa argitaratzeko eremuok kudeatzeko jarraibideak, lurralde historikoetako foru-organoek onartutakoak.

Ildo horretatik, Salburua kontserbazio bereziko eremu eta hegaztientzako babes bereziko eremu izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak, ekainaren 30eko 121/2015 Dekretuaren bitartez. Dekretu horretako 3.3 artikuluan eta azken xedapenetatik lehenengoan xedatzen denez, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariaren eskumena da argitara ematea, dekretuaren eranskin gisa, Arabako Foru Aldundiak onartutako kudeaketa-jarraibideak eta -neurriak.

Horrenbestez, aintzat hartuta Arabako Foru Aldundiak Diputatuen Kontseiluaren urriaren 13ko 583/2015 Erabakiaren bidez onartu zuela «Salburuko Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE) egoera onean kontserbatzeko eta eremu horietan habitatak narraiatzea eta espezieak eraldatzea saihesteko Kudeaketa Jarraibideak eta Neurriak biltzen dituen dokumentua eranstea, eta argitara ematea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren 121/2015 Dekretuaren eranskin gisa», honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematea, III. eranskinean, Salburuko Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE) egoera onean kontserbatzeko eta eremu horietan habitatak narraiatzea eta espezieak eraldatzea saihesteko Kudeaketa Jarraibideak eta Neurriak, Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2015eko urriaren 13an onartuak.


Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 4a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendaria,
SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ.

2015eko azaroaren 20a, ostirala

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 4KO 44/2015 EBAZPENARENA

III. ERANSKINA, EKAINAREN 30EKO 121/2015 DEKRETUARENA



**“ES2110014 – SALBURUA” KONTSERBAZIO
BEREZIKO EREMU (KEB) ETA
HEGAZTIENTZAKO BABES BEREZIKO EREMU
(HBBE) IZENDATZEA**

Kudeaketako gidalerro eta neurrien agiria



2015eko irailak

1. KUDEAKETAKO GIDALERRO ETA NEURRIAK

Euskal Herriko natura babesteko Legeak –zeinaren testu bategina honen bidez onartu baitzen: 1/2012 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa– mekanismo jakin bat zehazten du Europako Erkidegoko araudiaren babesean sortutako espazioen babes figurak lantzeko, zehazki, Natura 2000 Sarean jasotako naturagune babestuei heltzeko.

Hala, Legeak, 22.5 artikuluan, honela dio: «*Lurralde historikoetako foru organoek kudeaketa jarraibideak onartuko dituzte, kontserbazio helburuak oinarri hartuta, honako hauek jasoko dituztenak: eremuak kontserbazio egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea ekiditeko neurri egokiak eta inguru horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten alterazioak ekiditeko neurriak*».

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Sailaren 121/2015 DEKRETUAREN bidez (ekainaren 30ekoa; EHAOren 2015eko irailaren 8ko alea, 170.zk), Kontserbazio Bereziko Eremu eta Hegaztientzako babes bereziko Eremu izendatu zen Salburua, eta hura kontserbatzeko neurriak onartu.

Dokumentu honetan, ES2110014 Salburua KBE/HBBE Kudeatzeko Gidalerroak eta Neurriak ezartzen dira, 121/2015 Dekretu horretan ezarritako kontserbazio helburuen oinarriaren gainean.

Salburua-ren kontserbazioaren helburuetara heltzera zuzendutako **jarduerak** bat datoz:

1.AC. Ibaietako Jarduera Komunak. Eusko Jaurlaritzaren, urriaren 16koa 215/2012 Dekretuak, “*Eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena*” I. Eranskina

AP. Salburua KBE/HBBE-aren **Jarduera Partikularrak**

1. HEZEGUNEA

Helburuak eta neurriak	
Azken helburua	<p>Funtsezko elementu honen helburu nagusia sistemaren funtzionaltasun osoa mantendu, kontserbatu eta lehengoratzea da, interesgarriak diren espezie eta habitat ugariaren bizileku baita.</p> <p>Egokiena zera da: KBE/HBBEan dauden uretako habitaten kudeaketa modu bateratuan jorratzea, eta, horretarako, osatzen duten sistemarako neurriak, helburuak eta arauak zehaztea. Hala ere, habitat zehatz bakoitzerako neurri espezifikoak ere proposatu dira.</p> <p>Ondorioz, planteatu beharko diren jarduketek helburuak honakoak izan beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hezegunearen funtzionaltasun ekologikoa bermatzea eta, horretarako, haren dinamika naturalari eustea. - Era aktiboan kontserbatzea sistemaren barruko fauna eta flora populazioak eta habitatak eta mehatxatuenak eta ordezkaritza handiena dutenak babestea. - Azalera areagotu eta funtzionaltasuna hobetzea. - Heldutasuna, egitura konplexutasuna eta biodibertsitatea sustatzea. - Ingurumenarekin lotutako aisialdiaren eta jolasaren erabilera sustatu eta arautzea, erkidegoaren intereseko habitat eta espezieen kontserbazio egoera onarekin bateragarria izan dadin.
1. helburu operatiboa	Hezegunearen funtzionaltasun ekologikoa bermatzea eta, horretarako, haren dinamika naturalari eustea.
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	<p>1.AC.3. Arro erakunde eskudunaren aurrean KBE/HBBEa osatzen duten aintziren eta ubideen jabari publiko hidraulikoa zehatz dadila sustatuko da, erakunde horrek egindako edo baliozkotutako azterlan teknikoetan oinarrituta. Horretarako, kontuan hartuko dira ezaugarri morfologikoak, azterlan hidrológico eta hidraulikoak eta eskuragarri dauden erreferentzia historikoak.</p> <p>AP.1 Arro erakunde eskudunaren aurrean Salburuko hezeguneen babes perimetroa eta haren kargatze eremua¹ onar daitezela sustatuko da. Jarduera honen helburua zera da, ur geruza hertsiki babestea eta jarduerak arautzea, hezeguneak elikatzen dituen drainatzedun akuifero kuaternarioko gunek babeste aldera.</p> <p>1.AC.5. Egoera ekologikoaren jarraipena egiteko aldizkako laginketekin jarraituko da (ikus egungo kontrol puntuen kokapena jardueren mapan). Urtero txosten espezifiko bat (1.AC.6 jarduera) egingo da. Txosten horretan egindako laginketa guztien emaitzak agertuko dira, eta, informazio horretan oinarrituta, hauek ezarriko dira: egoera ekologikoa, habitata kutsatu eta aldatu ahal duten iturriak, eta bidezkoa bada, egoera ekologiko ona bermatzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak eta prebentziozkoak.</p> <p>1.AC.10 Hezegunean azaleko ur galtzaileen kalitatea hobetzeko jardungo da, eta, horretarako, ur horiek tratatuko dituen iragazki berde bat</p>

¹ Uren Legearen Testu Bategineko 56.3 artikulua eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 173. artikulua, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren eta aurrekoa aldatzen duen maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren bidez onartua.

	<p>instalatzeko aukeraren bideragarritasuna aztertuko da. Halaber, Arkauteko eta Elorriagako putzu septikoak, Arkauteko multzoaren araztegia, gunean dagoen abeltzaintza baserria eta Arkauteko gasolindegia Vitoria-Gasteizko saneamendu sarera lotzeko aukera aztertuko da.</p> <p>AP.2. Aintzira desugertzeko aldizkako lanak egiten jarraituko da.</p> <p>AP.3. AHTren proiektuak eta inguru horretan proiektatu diren beste azpiegitura batzuek (N-104 bitan banatzea hiritik irtetea, etab.) hezeguneen gainean kalterik eragiten ez dutela bermatuko da. Horretarako, beharrezkoa izango da azterketa sakona egitea aipatu obren ondorioz aurreikus daitezkeen ondorioei buruz. Horrez gain, KBE/HBBEaren kontserbazio egoera bermatzeko beharrezko neurri zuzentzaile eta babesleak proposatuko beharko dira.</p> <p>Berariaz zaindu beharko da bide eta trenbide azpiegitura hauek duten oztopo efektua, bai KBE/HBBEaren gainean, bai «desagertzeko arriskuan» kalifikatutako espezieen interes bereziko gune gisa katalogatutako guneko erreken gainean.</p> <p>AP.4 KBE/HBBEaren azaleko isurialdean dauden instalazioetatik istripu kasuetan egon daitezkeen isuri posibleen gainean prebentzio neurriak ezarriko dira.</p> <p>AP.5. San Tomasen goi ibarreko uren kontrol hidraulikorako sistema bat ezarriko da Betoñoko urmaelerako sarreran, nahi ez diren ur gainezkatzeak saihesteko.</p> <p>AP.6. Salburuko auzo berriko euri uren sarean jasotako urak hezegune sistemara bideratzearen bideragarritasuna aztertuko da, eta, horren barruan, aurretiaz tratamendua egin beharrik ote dagoen aztertuko da.</p> <p>AP.7. Azterketa bat egingo da Alegriako kanalak Salburuko ezaugarri hidrokologikoen eta ingurumenekoetan izan dezakeen eraginari buruz, eta, bidezkoa bada, neurri zuzentzaileak proposatuko dira.</p>
<p>2. helburu operatiboa</p>	<p>1.1.1.1 Ur gozoko habitatak garatzeko baldintza egokiak mantentzea. Heldutasuna, egitura konplexutasuna eta biodibertsitatea sustatzea.</p>
<p>Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak</p>	<p>Uren egoera onari eta kalitateari eusteko neurriak aplikatuko dira, haren garapenerako baldintzak sustatze aldera.</p> <p>1.AC.18. Fauna eta flora espezie exotiko inbaditzaileen jarraipena eta aldizkako kontrola egingo dira. Funtsezko elementutzat jotzen diren espezieen gainean ukipena sortzeko aukera gehien dutenak lehenetsiko dira, besteak beste Azolla filiculoides eta arrain eta karramarro aloktonoak.</p> <p>AP.8. Larreetan oreinak orain bezala erabiltzen jarraituko da, jatorri iberiarreko animaliak lehenetsita, eta abeltzaintza estentsiboa KBEko beste larre batzuetara hedatzen dela sustatuko da.</p> <p>AP.9. Larreetako sasitzak mekanikoki mozteko aldizkako lanak egiten jarraituko da.</p>
<p>3. helburu operatiboa</p>	<p>1.1.1.2 Habitaten bilakaeraren jarraipena egitea</p>
<p>Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak</p>	<p>1.AC.11. KBE/HBBEan dauden habitaten jarraipena egiteko protokolo bat ezarriko da (6 urtero), batez ere ur gozoko habitaten kasuan (3140, 3150, 6410, 6420, 6430 eta 7230), okupatutako azaleran eragiten dituzten aldaketak, bilakaera, elkarren arteko loturak eta egiturazko bilakaera baloratzeko. Horretarako, gune iraunkorrak jarriko dira, kontserbazio egoeraren bilakaera aztertze aldera.</p> <p>1.AC.12 Azalera oso txikiak okupatzen dituzten, urteko garai jakin batzuetan</p>

2015eko azaroaren 20a, ostirala

	egoerarik onena duten edo zehazteko baldintza tekniko bereziak behar dituzten ur gozoko habitaten inbentario eta kartografia zehatza egingo dira, besteak beste, 3140 habitatarena eta 3150 habitatarena.
4. helburu operatiboa	1.1.1.3 Jolas erabilera araupetzea
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	<p>1.AC.21 Ingurumen hezkuntzarako eta sentsibilizatorako jarduerak garatuko dira, urarekin lotutako eta erkidegoaren intereseko habitaten kontserbazioak duen garrantziari dagokionez. Horren harira, erabilera publikoa kudeatzeko, ingurumen hezkuntzarako eta ingurumena interpretatzeko lanekin jarraituko da, Vitoria-Gasteizko Udalean lehendik ere egiten den bezala. Halaber, mantentze lanak, hondakinen garbiketa eta jendaurreko arreta eta zaintza lanak ere egingo dira.</p> <p>Aurreko paragrafoan aipatzen den ingurumen sentsibilizazio eta hezkuntzarako jarduera planean programa zehatz bat sartuko da espezie exotiko inbaditzaileen arazoari buruz. Bertan, kontuan hartu beharko da KBE/HBBEko funtsezko elementu desberdinen kontserbaziorako presio larriretako bat dela.</p> <p>1.AC.24. KBE/HBBEaren ezaugarri bereziak edo erabilera publiko berezia duten lekuetan, ingurune bakoitzari egokitutako seinaleak instalatuko dira, KBE/HBBEa nahiz haren ingurumen balioak identifikatzeko.</p>

2. SAHASTIAK (KOD. UE 92A0)

Helburuak eta neurriak	
Azken helburua	Ibai habitaten kontserbazio egoera eta ibai mosaikoaren heterogeneotasuna hobetzea
1. helburu operatiboa	Habitat naturalek okupatutako azalera osoaren igoera sustatzea
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	<p>1.AC.1 Ibaiertzeko berezko habitatak lehengoratu dira, eta, beharrezkoa denean, lurren jabeekin borondatezko akordioak sustatuko dira, lur landatua, larreak edo etenak sorrarazi ahal dituzten bestelako erabilerengatik ibaiertzeko basoaren jarraitasuna galdu den tarteetan. Helburua ibaiertzeko landaredi naturaleko zerrenda etengabe bat lehengoratu eta mantentzea izango da, organo kudeatzaileak zehazten dituen lehentasunezko esparruetan eta organo horrek ezartzen dituen lehentasunen arabera. KBE/HBBEa planifikatzeko eta kudeatzeko eskumena duten administrazioek parte hartuko dute zerrenda hori ezartzean.</p>
2. helburu operatiboa	Espezie exotikoen presentzia gutxitzea
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	<p>1.AC.17 KBE/HBBEko habitat naturalen balio-galera eragiten duten flora eta fauna exotiko inbaditzaileen espezieak kontrolatzeko eta haien aldizkako jarraipena egiteko jarduketak egingo dira. Habitat naturalen egiturarentzat eta funtzioentzat kaltegarriak ez diren metodoak erabiliko dira.</p>

3. HARIZTIA ETA LIZARDIA

Helburuak eta neurriak	
Azken helburua	Habitat naturalek okupatzen duten azalerak handitzea Ondoen kontserbatutako kokaguneei egungo egoeran eustea.
1. helburu operatiboa	Habitat naturalek hartutako azalera orokorra areagotu dadin bultzatzea
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	<p>AP.10. KBE/HBBEaren barruan harizti masak jaso ahal dituzten azalerak ekologikoki lehengoratuko dira eta espezie autoktonoen bidezko birpopulazio lanekin jarraituko da, erabili beharreko aleen jatorri genetikoa bermatuta, batez ere haritzen kasuan</p> <p>1.AC.11. KBE/HBBEan funtsezkotzat jotzen diren habitaten bilakaeraren jarraipeneko protokolo bat ezarriko da (6 urterik behin). Halaber, KBE/HBBEan dauden Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko flora espezieen populazioak detektatzeko eta kartografiatzeko laginketa espezifikoa egingo dira.</p> <p>1.AC.14 KBE/HBBEan iraungitzaletzat jotzen diren flora mehatxatuaren espezieak berriz ere sartzearen bideragarritasuna aztertuko da.</p> <p>Flora eta fauna espezie exotiko inbaditzaileen aldizkako kontrol eta jarraipenerako 1.AC.17 jarduera aplikatu behar da.</p>

4. BISOI EUROPARRA (*Mustela lutreola*)

Helburuak eta neurriak	
Azken helburua	Bisoi europarraren populazio bideragarriak eta KBE/HBBEaren harrera ahalmenarekin bat datozenak egon daitezela bermatzea, kanpoko esku-hartzerik gabe edo esku-hartzerik txikienarekin, espeziearen kontserbazio egokia ahalbidetzeko.
1. helburu operatiboa	Espeziearen gaineko eraginak zuzentzea KBE/HBBEan.
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	<p>Funtsezko elementua den hezegunerako proposatutako neurri guztiak aplikatu behar dira, batez ere ekosistemaren funtzioei eta prozesuei eusteko eta hartutako neurrien eraginkortasunaren jarraipena egiteko horiek.</p> <p>Sahastiak Funtsezko Elementurako proposatutako neurriak ere aplikatu behar dira, ibai mosaikoaren kontserbazio egoera eta heterogeneotasuna nahiz gaur egun balio ekologikorik handiena duten kokalekuen kontserbazioa hobetzeko.</p> <p>1.AC.22 Bisoi europarraren kontserbaziorako zuzentarau teknikoak idaztea eta hedatzea.</p>
2. helburu operatiboa	KBE/HBBEko bisoi europarraren banaketa eremuaren barruan dauden bisoi amerikar basatiak kontrolatzea.
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	1.AC.18. Fauna espezie exotiko inbaditzaileen jarraipena eta aldizkako kontrola egingo dira. Funtsezko elementutzat jotzen diren espezieen gainean ukipena sortzeko aukera gehienak dituztenak lehenetsiko dira (bisoi amerikarra).
3. helburu operatiboa	KBE/HBBEaren espezieen lotura sustatzea
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	AP.11. Gutxienez korridore funtzional bat bermatuko da Gasteizko Mendietara Errekabarri errekan. Korridoreak Ertzaintzaren Ikastegian isuriko ditu urak, azpiegitura linealekiko gurutzaketak iragazkortuko ditu eta ertzetan landaretza lehengoratuko du.

2015eko azaroaren 20a, ostirala

	Lotura ekologikoaren arloan onartutako estrategiak aplikatzen direla sustatuko da, KBE/HBBEan batasunaren intereseko eta/edo lehentasunezko habitaten arteko lotura bultzatzeko, bai eta hurbil dauden Natura 2000 Sareko beste habitat katalogatu batzuekin eta orokorrean mugakide diren eta ingurumen aldetik interesa duten esparruekiko lotura ere. Lotura aldetik interesa duten gunek identifikatu, eta bidezkoa bada kontserbatzeko eta hobetzeko jarduketak inplementatuko dira.
4. helburu operatiboa	Jardueren eraginkortasuna ebaluatzea.
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	1.AC.16 neurria aplikatu behar da, KEB/HBBEko bisoi europarraren populazioaren gaineko urteko jarraipena egiteari buruzkoa. Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko.
5. helburu operatiboa	KBE/HBBEko populazioaren aldakortasun genetiko nahikoa ziurtatzea, epe luzean biziraungo duela ziurtatzeko
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	AP.12 Populazioa indartzeko proiektu posible bat sustatuko da, gatibu dauden kumeen bidez.

5.KIROPTEROAK

Helburuak eta neurriak	
Azken helburua	Kiroptero populazioen presentzia bermatzea, KBE/HBBEaren harrera gaitasunaren arabera
1. helburu operatiboa	KBE/HBBEan kiroptero espezieentzako habitat egokia dagoela bermatzea eta jarduketan eraginkortasuna ebaluatzea.
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	1.AC.16 neurria aplikatu behar da, KBE/HBBEan kiropteroen populazioen aldizkako jarraipena egiteari buruzkoa. Azterketa horiei esker, KBE/HBBEan dauden kiroptero espezie desberdinen ugaritasuna zehaztu ahalko da, eta, era berean, babeslekuak identifikatu eta instalatuta dauden kutxa-babeslekuen okupazioa ebaluatu, babesleku horiek areagotzearen beharrezkoa ebaluatu eta espezieek habitatarik ematen dieten erabilaren ezaugarriak ezarri eta haren banaketa kartografiatuko dira.

6.URETAKO HEGAZTIAK ETA UR BENARRIZA (*Acrocephalus paludicola*)

Helburuak eta neurriak	
Azken helburua	Espazio honetan bizi diren hegazti migratzaile eta habiagileen populazioak babestu eta berreskuratzea, eta, horretarako, KBE/HBBEak hegazti talde desberdinentzat duen harrera gaitasuna hobetzea
1. helburu operatiboa	Espazio honetan bizi diren hegazti migratzaile eta habiagileen populazioak babestea.
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	Ingurumen hezkuntzarako jarduerak garatzeari eta erabilera publikoa kudeatzeari buruzko 1.AC.21 jarduera aplikatzean, kontuan hartuko da hegaztientzako bereziki sentikorrek diren arloetarako sarbidea mugatu egin behar dela, urteko zikloko funtsezko une batean (adibidez, ugalketa garaian) gizakien presentziaren ondorioz eragozpen zuzenik sor ez dadin. AP.13. KBE/HBBEaren mugetan zuhaitz banda bat sortu behar da, dentsoa eta ahalik eta zabalena, batez ere Betoño inguruan, eta, hala, urbanizatutako gunetako hezegunea isolatuko da. Halaber, banda hori beste batzuekin lotzeko aukera baloratu behar da, KBE/HBBEaren barruan konektibitatea sustatze aldera.

2. helburu operatiboa	KBE/HBBEan espezieentzako habitataren egoera hobetzea
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	<p>Funtsezko elementu diren "hezegune", "sahasti" eta "hariztietarako" proposatutako jarduketa komunak aplikatu behar dira.</p> <p>Aplikatzekoa da ere AP.8 jarduera. Abeltzaintza erabilera estentsiboa KBE/HBBEko beste larre batzuetara hedatzen dela sustatu behar da.</p> <p>1.AC.25. KBE/HBBEaren esparruan dauden linea elektrikoen arazoa aztertuko da. Hegaztiak talka egiteko edo elektrokutatzekeo dituzten arriskuak identifikatuko dira. Titular diren erakundeekin batera arriskua duten lineetan jarduteko plan bat egingo da, linea horietan talken aurkako gailuak eta elektrokuzioaren aurkako neurriak ezartzeko.</p> <p>AP.14. Diagnostiko xehakaturia eta ekintza plana egingo dira, KBE/HBBEaren eremuan eta haren eremu hurbilean soinu eta argi kutsadura murrizte aldera.</p> <p>AP.15. Hegaztien heriotza masiboko episodio posibleak goiz antzemateko alerta sistema bat eta halako arazoetan jarduteko protokolo bat ezarriko dira.</p>
3. helburu operatiboa	Jardueren eraginkortasuna ebaluatzea.
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	<p>1.AC.16 jarduketa aplikatu behar da. KBE/HBBEan funtsezko elementua osatzen duten fauna espezieen populazioen gaineko aldizkako jarraipena egingo da. Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko.</p> <p>Aurreko paragrafoan aipatzen diren espezieen kontserbazio egoera gutxienez sei urtean behin ebaluatu behar da. Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan nahiz Euskal Katalogoan agertzen diren espezieentzat, eta espeziearen estrategiak edo haren kudeaketa planak bestelako aldizkakotasunik ezartzen ez badu, ebaluazioak gehienez sei urtero egin beharko dira «zaurgarritzat» jotzen diren espezieen kasuan eta hiru urtero «desagertzeko arriskuan» dauden espezieen kasuan, bisoi europarra salbuespena izanik. Azken horretan, jarraipena urtero egingo da eta haren kontserbazio egoera 3 urtero ebaluatuko da.</p>

7.APOARMATU KORRONTEZALEA (*Mauremys leprosa*)

Helburuak eta neurriak	
Azken helburua	Espezie honen populazioak berreskuratu eta babestea
1. helburu operatiboa	KBE/HBBEan apoarmatu korrontezalearen populazioak kontserbatu eta berreskuratzea eta egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea.
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	<p>Aplikatu beharreko neurrien artean daude 1.AC.18 jarduketa, fauna espezie exotiko inbaditzaileen jarraipena eta aldizkako kontrola egiteko jarduerari buruzkoa, zehazki KBE/HBBEan dauden apoarmatu exotikoei dagokienez, 1.AC.16 jarduketa, KBE/HBBEan apoarmatuen populazioen aldizkako jarraipena egiteari buruzkoa, 1.AC.19 jarduketa, apoarmatu korrontezalearen kudeaketa plana onartzeari buruzkoa, eta 1.AC.21 jarduketa, ingurumen hezkuntzarako eta sentsibilizaziorako jarduketak garatzeari buruzkoa. Kasu honetan horren barruan jendeari zuzendutako sentsibilizazio kanpainak indartuko dira, ale exotikoak aska ez daitezen.</p>

8.BASO IGEL JAUZKARIA (*Rana dalmatina*)

Helburuak eta neurriak	
Azken helburua	Espezie honen populazioak berreskuratu eta babestea, eta, horretarako, horien garatzeko habitatak eta ugalketa tokiak zaintzea.
1. helburu operatiboa	KBE/HBBEan espeziearentzako habitataren baldintzak hobetzea eta egindako jardueren eraginkortasuna ebaluatzea
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	<p>Habitat naturalek (hariztiak eta lizardiak) okupatzen duten azalera globala areagotzen dela sustatzeko helburuarekin lotuta egindako jarduerak aplikatuko dira.</p> <p>Espezieari eragiten dioten espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzea xede duten neurri guztiak aplikatuko dira.</p> <p>1.AC.16 jarduketa aplikatu behar da. KBE/HBBEaren eremuan baso igel jauzkaria eta apo pintatu iberiarra ote dauden zehazteko ikuskapen zehatzak egingo dira. Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko.</p> <p>Aplikatzekoa da ere AP.10. jarduera. KBE/HBBEaren barruan harizti masak jaso ahal dituzten azalera ekologikoki lehengoratuko dira eta espezie autoktonoen bidezko birpopulazio lanekin jarraituko da, erabili beharreko aleen jatorri genetikoa bermatuta, batez ere haritzen kasuan. Era berean, AP.11 jarduketa aplikatu behar da, Errekabarri erreko korridore ekologikoa Gasteizko Mendietara indartzeari buruzkoa.</p> <p>AP.16. Espeziearen hazkuntza kontrolaturako lanekin jarraituko da, haren tasak areagotu eta populazioa indar dadin.</p> <p>Halaber, baso igel jauzkariaren kudeaketa plana idatzi eta onartzen dela sustatzeko 1.AC.19 neurria eta espeziearen habitatak kontserbatzeko gidalerro teknikoak idatzi eta hedatzeari buruzko 1.AC.22 neurria aplikatu behar dira.</p>

9. ARRAINAK: LOINA (*Parachondrostoma miegii*), ERRUTILO HEGALGORRIA (*Achondrostoma arcasii*).

Helburuak eta neurriak	
Azken helburua	Arrain populazio autoktono bideragarriak eta KBE/HBBEaren harrera ahalmenarekin bat datozenak egon daitezela bermatzea, ahalik eta esku-hartze txikienarekin, espezieen kontserbazio egokia ahalbidetzeko.
1. helburu operatiboa	KBE/HBBEan dauden arrain espezieen gaineko eraginak zuzentzea
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	<p>1.AC.18. Definituta dauden funtsezko espezieei eragiteko aukera gehienak dituzten arrain espezie exotikoen aldizkako jarraipena eta kontrola. KBE/HBBEko ur masetako batzuetan, tamaina ertain edo txikikoetan eta ur maila neurtua dutenean, arrain espezie inbaditzaileak desagerrarazi edota kontrolatzeko aukera planteatuko da, agorraldian lehortu egiten dira eta.</p> <p>Espezie exotiko inbaditzaileei dagokienez, 1.AC.21 eta 1.AC.22 jarduketa komunak ere aplikatu behar dira, ingurumen hezkuntza, sentsibilizazioa eta espezie horien habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoen hedapena hizpide dituztenak.</p>

2015eko azaroaren 20a, ostirala

2. helburu operatiboa	Jardueren eraginkortasuna ebaluatzea.
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	1.AC.16 Funtsezko elementua osatzen duten arrain faunako espezie populazioen aldizkako jarraipena egingo da KBE/HBBEan, eta, hala badagokio, kontserbazio egoeraren diagnostikoa egingo da, KBE/HBBEan errun gunerik dagoen zehaztuko da, habitatei eragiten dieten asaldurak eta bilakaera demografikoa aztertuko dira, populazio horien egoera mantendu edota hobetze aldera. Horren barruan, Zadorrako arroko beste populazio batzuetatik espezie autoktonoak berriz sartzeko aukera aztertuko da, egokitzen jotzen den kasuetan.

10. KONTSERBATU BEHARREKO ARTROPODOAK

Helburuak eta neurriak	
Azken helburua	Mehatxatutako intsektuen populazio egonkorra mantentzea.
1. helburu operatiboa	Habitat egokia dagoela bermatzea
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	AP.17. Egur hilen enborrak eta adarrak metatzen jarraituko da. Odonatuei hezeguneak kontserbatzea xede duten neurriak aplikatu behar zaizkie.
2. helburu operatiboa	Populazioek KBE/HBBEan duten egoera ezagutzea
Kudeaketako gidalerroak, jarduketak eta neurriak	1.AC.13 jarduera ere aplikatzekoa da: Laginketa zehatzak egingo dira Batasunaren edota eskualdearen intereseko ornogabeek KBE/HBBEaren eremuan duten presentziari buruzko ezagutza hobetzeko. Laginketa ahalegina, hasiera batean, erkidegoaren intereseko espezieengan egingo da, <i>Coenagrion mercuriale</i> , <i>Lucanus cervus</i> , <i>Rosalía alpina</i> eta <i>Euphydrys aurinia</i> kasu.

2015eko azaroaren 20a, ostirala

KUDEAKETAKO GIDALERRO ETA NEURRIEN PROGRAMA ETA KALKULU EKONOMIKOAK.

Atal honetan jasotzen den jarduera programaren barruan, Salburuko KEB/HBBEan identifikatutako funtsezko elementuen kontserbazio helburuak lortzeko proposatutako neurriak laburbiltzen dira. Orientabide gisa, jarduera horien kostu ekonomikoaren zenbatespen bat ere ematen da.

Funtsezko elementua	NEURRIA	Guztira (€)
1. HEZEGUNEA	<p>1.AC.3. Arro erakunde eskudunaren aurrean KBE/HBBEa osatzen duten aintziren eta ubideen jabari publiko hidraulikoa zehatz dadila sustatuko da, erakunde horrek egindako edo baliozkotutako azterlan teknikoetan oinarrituta. Horretarako, kontuan hartuko dira ezaugarri morfologikoak, azterlan hidrológico eta hidraulikoak eta eskuragarri dauden erreferentzia historikoak.</p> <p>AP.1 Arro erakunde eskudunaren aurrean Salburuko hezegunee babes perimetroa eta haren kargatze eremua onar daitezela sustatuko da. Jarduera honen helburua zera da: ur geruza hertsiki babestea eta jarduerak arautzea, hezegunee elikatzen dituen drainatzedun akuifero kuaternarioko guneak babeste aldera.</p>	50 000
		-
	<p>1.AC.5. Hezeguneearen egoera ekologikoaren gaineke aldizkako laginketekin jarraituko da. Urtero txosten espezifiko bat (1.AC.6 jarduera) egingo da. Txosten horretan egindako laginketa guztien emaitzak agertuko dira, eta, informazio horretan oinarrituta, hauek ezarriko dira: kutsadura iturri posibleak, eta, bidezkoa bada, uraren kalitatea bermatzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak eta prebentziozkoak.</p>	300 000
	<p>1.AC.10. Hezeguneean azaleko ur galtzaileen kalitatea hobetzeko jardungo da, eta, horretarako, ur horiek tratatuko dituen iragazki berde bat instalatzeko aukeraren bideragarritasuna aztertuko da. Halaber, Arkauteko eta Elorriagako putzu septikoak, Arkauteko multzoaren araztegia, gunean dagoen abeltzaintza baserria eta Arkauteko gasolindegia Gasteizko saneamendu sarera lotzeko aukera aztertuko da.</p>	800 000
	<p>1.AC.11. KBE/HBBEan dauden habitaten jarraipena egiteko protokolo bat ezarriko da (6 urtero), batez ere ur gozoko habitaten kasuan (3140, 3150, 6410, 6420, 6430 eta 7230), okupatutako azaleran eragiten dituzten aldaketak, bilakaera, elkarren arteko loturak eta egiturazko bilakaera baloratzeko. Horretarako, gune iraunkorrek jarriko dira, kontserbazio egoeraren bilakaera aztertze aldera.</p>	25 000
	<p>1.AC.12 Azalera oso txikiak okupatzen dituzten, urteko garai jakin batzuetan egoerarik onena duten edo zehazteko baldintza tekniko bereziak behar dituzten ur gozoko habitaten inbentario eta kartografia zehatza egingo dira, besteak beste, 3140 habitatarena eta 3150 habitatarena.</p>	8 000

2015eko azaroaren 20a, ostirala

Funtsezko elementua	NEURRIA	Guztira (€)
	<p>1.AC.18 Fauna eta flora espezie exotiko inbaditzaileen jarraipena eta aldizkako kontrola egingo dira. Funtsezko elementutzat jotzen diren espezieen gainean ukipena sortzeko aukera gehienak dituztenak lehenetsiko dira, besteak beste Azolla filiculoides eta arrain eta karramarro aloktonoak.</p>	90 000
	<p>1.AC.21. Ingurumen hezkuntzarako eta sentibilizaziorako jarduketak gartuko dira, urarekin lotutako eta Batasunaren intereseko habitaten kontserbazioak duen garrantziari dagokionez. Erabilera publikoa kudeatzeko, ingurumen hezkuntzarako eta ingurumena interpretatzeko, mantentze lanetarako, hondakinak garbitzeko eta jendeari arreta eta zaintza zerbitzua emateko lanekin jarraituko da.</p> <p>Aurreko paragrafoan aipatzen den ingurumen sentibilizazio eta hezkuntzarako jarduera planean programa zehatz bat sartuko da espezie exotiko inbaditzaileen arazoari buruz. Bertan, kontuan hartu behar da KBE/HBBEko funtsezko elementu desberdinen kontserbaziorako presio larrietako bat dela.</p>	1 500 000
	<p>1.AC.24. KBE/HBBEaren ezaugarri bereziak edo erabilera publiko berezia duten lekuetan, ingurune bakoitzari egokitutako seinaleak instalatuko dira, KBE nahiz haren ingurumen balioak identifikatzeko.</p>	25 000
	<p>AP.2. Aintzira desugertzeko aldizkako lanak egiten jarraituko da.</p>	240 000
	<p>AP.3. AHTren proiektuak eta inguru horretan proiektatu diren beste azpiegitura batzuek (N-104 bitan banatzea hiritik irtetea, etab.) hezeguneen gainean kalterik eragiten ez dutela bermatuko da. Horretarako, beharrezkoa izango da azterketa sakona egitea aipatu obren ondorioz aurreikus daitezkeen ondorioei buruz. Horrez gain, KBE/HBBEaren kontserbazio egoera bermatzeko beharrezko neurri zuzentzaile eta babesleak proposatuko behar dira.</p> <p>Berariaz zaindu behar da bide eta trenbide azpiegitura hauek duten oztopo efektua, bai KBE/HBBEaren gainean, bai «desagertzeko arriskuan» kalifikatutako espezieen interes bereziko gune gisa katalogatutako guneko erreken gainean. Bide edo trenbide proiektu bakoitzeko aurrekontuen kargura, iragazkortasun hidrológicoa eta KBE/HBBEaren iragazkortasun ekologikoa bermatzen duten neurriak hartuko dira, «oztopo» efektu nabarmenak saihestuz.</p>	-
	<p>AP.4 KBE/HBBEaren azaleko isurialdean dauden instalazioetatik istripu kasuetan egon daitezkeen isuri posibleen gainean prebentzio neurriak ezarriko dira.</p>	50 000
	<p>AP.5. San Tomasen goi ibarreko uren kontrol hidraulikorako sistema bat ezarriko da Betoñoko urmaelerako sarreran, nahi ez diren ur gainezkatzeak saihesteko.</p>	150 000
	<p>AP.6. Salburuko auzo berriko euri uren sarean jasotako urak hezegune sistemara bideratzearen bideragarritasuna aztertuko da, eta, horren barruan, aurretiaz tratamendua egin beharrik ote dagoen aztertuko da.</p>	30 000
	<p>AP.7. Azterketa bat egingo da Alegriako kanalak Salburuko ezaugarri hidrológicoetan eta ingurumenekoetan izan dezakeen eraginari buruz, eta, bidezkoa bada, neurri zuzentzaileak proposatuko dira.</p>	30 000

2015eko azaroaren 20a, ostirala

Funtsezko elementua	NEURRIA	Guztira (€)
	AP.8. Larreetan oreinak orain bezala erabiltzen jarraituko da, jatorri iberiarreko animaliak lehenetsita, eta abeltzaintza estentsiboa KBE/HBBEko beste larre batzuetara hedatzen dela sustatuko da.	30 000
	AP.9 Larreetako sasitzak mekanikoki mozteko aldizkako lanak egiten jarraituko da.	50 000
	FUNTSEZKO ELEMENTUA, GUZTIRA	3 378 000
2. SAHASTIAK	1.AC.1. Ibaiertzeko berezko habitatak lehengoratu dira, eta, beharrezkoa denean, lurren jabeekin borondatezko akordioak sustatuko dira, lur landatua, larreak edo etenak sorrarazi ahal dituzten bestelako erabilerengatik ibaiertzeko basoaren jarraitasuna galdu den tartean. Helburua ibaiertzeko landaredi naturaleko zerrenda etengabe bat lehengoratu eta mantentzea izango da, organo kudeatzaileak zehazten dituen lehentasunezko esparruetan eta organo horrek ezartzen dituen lehentasunen arabera. KBE/HBBEa planifikatzeko eta kudeatzeko eskumena duten administrazioek parte hartuko dute zerrenda hori ezartzean.	136 800
	1.AC.17. KBE/HBBEko habitat naturalen balio-galera eragiten duten flora exotiko inbaditzaileen espezieak kontrolatzeko eta haien aldizkako jarraipena egiteko jarduketak egingo dira. Habitat naturalen egiturarentzat eta funtzioentzat kaltegarriak ez diren metodoak erabiliiko dira.	6 000
	FUNTSEZKO ELEMENTUA, GUZTIRA	142 800
3. HARIZTIA ETA LIZARDIA	1.AC.11. KBE/HBBEan funtsezkotzat jotzen diren habitaten bilakaeraren jarraipeneko protokolo bat ezarriko da (6 urterik behin). Halaber, KBE/HBBEan dauden batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko flora espezieen populazioak detektatzeko eta kartografiatzeko laginketa espezifikoko egingo dira (Jarduera 1.AC.14). Aztertuko da ea badagoen aukerarik KBE/HBBEan galdutzat jo diren landare espezie mehatxatuak berriro sartzeko.	30 000
	AP.10. KBE/HBBEaren barruan harizti masak har ditzaketen azalerak ekologia aldetik lehengoratu dira.	50 000
	1.AC.14 Aztertuko da ea badagoen aukerarik KBE/HBBEan galdutzat jotzen diren flora mehatxatuaren espezieak berriro sartzeko.	30 000
	Flora espezie exotiko inbaditzaileen aldizkako kontrol eta jarraipenerako 1.AC.17 jarduera aplikatu behar da.	-
	FUNTSEZKO ELEMENTUA, GUZTIRA	80 000
4. BISOI EUROPARRA	1.AC.16 KBE/HBBEan bisoi populazioen urteroko jarraipena eta 3 urteroko ebaluazioa egingo dira. Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko.	60 000

2015eko azaroaren 20a, ostirala

NEURRIA		Guztira (€)
Funtsezko elementua		60 000
	1.AC.18. Fauna espezie exotiko inbaditzaileen jarraipena eta aldizkako kontrola egingo dira. Funtsezko elementutzat jotzen diren espezieen gainean ukipena sortzeko aukera gehienak dituztenak lehenetsiko dira (bisoï amerikarra).	
	1.AC.22. Bisoi europarraren kontserbaziorako zuzentarau teknikoak idaztea eta hedatzea.	33 500
	AP.11. Gutxienez korridore funtzional bat bermatuko da Gasteizko Mendietara Errekabarri errekan. Korridoreak Ertzaintzaren Ikastegian isuriko ditu urak, azpiegitura linealekiko gurutzetak iragazkortuko ditu eta ertzetan landaretza lehengoratu du.	500 000
	Lotura ekologikoaren arloan onartutako estrategiak aplikatzen direla sustatuko da, KBE/HBBEan batasunaren intereseko eta/edo lehentasuneko habitaten arteko lotura bultzatzeko, bai eta hurbil dauden Natura 2000 Sareko beste habitak katalogatu batzuekin eta orokorrean mugakide diren eta ingurumen aldetik interesa duten esparruekiko lotura ere. Lotura aldetik interesa duten guneak identifikatu, eta bidezkoa bada kontserbatzeko eta hobetzeko jarduketak implementatuko dira.	
	AP.12 Populazioa indartzeko proiektu posible bat sustatuko da, gatibu dauden kumeen bidez.	80 000
FUNTSEZKO ELEMENTUA, GUZTIRA		733 500
5. KIROPTEROAK	1.AC.16 KBE/HBBEan kiropteroen populazioaren aldizkako jarraipena egingo da.	24 000
FUNTSEZKO ELEMENTUA, GUZTIRA		24 000
6. UR BENARRIZA ETA URETAKO HEGAZTIAK	AP.13. KBE/HBBEaren mugetan zuhaitz banda bat sortu behar da, dentsua eta ahalik eta zabalena, batez ere Betoñu inguruan, eta, hala, urbanizatutako guneetako hezegunea isolatuko da. Halaber, banda hori beste batzuekin lotzeko aukera baloratu behar da, KBE/HBBEaren barruan konektibitatea sustatze aldera.	90 000
	AP.14. Diagnostiko xehakatu eta ekintza plana egingo dira, KBE/HBBEaren eremuan eta haren eremu hurbilean soinu eta argi kutsadura murrizte aldera.	21 000
	1.AC.16. KBE/HBBEan funtsezko elementua osatzen duten fauna espezieen populazioen gaineko aldizkako jarraipena egingo da. Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko.	90 000
	AP.15. Hegaztien heriotza masiboko episodio posibleak goiz antzemateko alerta sistema bat eta halako arazoetan jarduteko protokolo bat ezarriko dira.	18 000

2015eko azaroaren 20a, ostirala

Funtsezko elementua	NEURRIA	Guztira (€)
	<p>1.AC.25. KBE/HBBEaren esparruan dauden linea elektrikoaren arazoa aztertuko da. Hegaztiak talka egiteko edo elektrokutatzeak dituzten arriskuak identifikatuko dira. Titular diren erakundeekin batera arriskua duten lineetan jarduteko plan bat egingo da, linea horietan talken aurkako gailuak eta elektrokuzioaren aurkako neurriak ezartzeko.</p>	15 000
	Abeltzaintza erabilera estentsiboa KBE/HBBEko beste larre batzuetara hedatzen dela sustatu behar da, AP.8 jarduera aplikatzeko.	-
	Ingurumen hezkuntzarako jarduerak garatzeari eta erabilera publikoa kudeatzeari buruzko 1.AC.21 jarduera aplikatzean, kontuan hartuko da hegaztientzako bereziki sentikorrek diren arloetarako sarbidea mugatu egin behar dela, urteko zikloko funtsezko une batean (adibidez, ugalketa garaian) gizakien presentziaren ondorioz eragozpen zuzenik sor ez dadin.	-
	FUNTSEZKO ELEMENTUA, GUZTIRA	234 000
7. APOARMATU KORRONTEZALEA		12 000
	1.AC.18. Fauna espezie exotiko inbaditzaileen aldizkako kontrola eta jarraipena egingo dira KBE/HBBEan, batez ere apoarmatu exotikoena.	16 500
	1.AC.16. KBE/HBBEan apoarmatuen populazioaren aldizkako jarraipena egingo da.	
	1.AC.19. Apoarmatu korrontezalearen kudeaketa plana onar dadila sustatuko da.	
	1.AC.21. Ingurumen hezkuntza eta sentsibilizaziorako jarduerak garatuko dira. Kasu honetan, jendeari zuzendutako sentsibilizazio kanpainak indartuko dira, ale exotikoak aska ez daitezen.	9 000
	FUNTSEZKO ELEMENTUA, GUZTIRA	37 500
8. BASO IGEL JAUZKARIA		30 000
	1.AC.16 KBE/HBBEaren eremuan baso igel jauzkaria eta apo pintatu iberiarra ote dauden zehazteko ikuskapen zehatzak egingo dira. Bidezkoa bada, haien kontserbazio egoeraren, bilakaera demografikoaren eta habitatei eragiten dieten asalduren diagnostikoa egingo da, populazio horien egoera mantendu eta/edo hobetzeko.	
	AP.10. ere aplikatzekoa da. KBE/HBBEaren barruan harizti masak jaso ahal dituzten azalerak ekologikoki lehengoratu dira eta espezie autoktonoen bidezko birpopulazio lanekin jarraituko da, erabili beharreko aleen jatorri genetikoa bermatuta, batez ere haritzen kasuan.	
	AP.16. Espeziearen hazkuntza kontrolaturako lanekin jarraituko da, haren tasak areagotu eta populazioa indar dadin.	60 000
	1.AC.19 Baso igel jauzkariaren kudeaketa plana idatzi eta onartzen dela sustatuko da.	15 000
	1.AC.22 Espezie honen habitatak kontserbatzeko gidalerro teknikoak idatzi eta hedatuko dira.	10 000

2015eko azaroaren 20a, ostirala

Funtsezko elementua	NEURRIA	Guztira (€)
	Aplikatu behar da AP.11 jarduketa, Errekabarri erreka korridore ekologikoa Gasteizko Mendietara indartzeari buruzkoa.	
	FUNTSEZKO ELEMENTUA, GUZTIRA	115 000
9. ARRAIN ERKIDEGOA (Ioina, errutilo hegalgorria).	1.AC.16. KBE/HBBEan funtsezko elementu diren arrain espezieen populazioen gaineko aldizkako jarraipena egingo da.	10 000
	1.AC.18. Definituta dauden funtsezko espezieei eragiteko aukera gehienak dituzten arrain espezie exotikoen aldizkako jarraipena eta kontrola.	18 000
	Espezie exotiko inbaditzaileei dagokienez, 1.AC.21 eta 1.AC.22 jarduketa komunak ere aplikatu behar dira, ingurumen hezkuntza, sentsibilizazioa eta espezie horien habitatak kontserbatzeko jarraibide teknikoak hedapena hizpide dituztenak.	-
	FUNTSEZKO ELEMENTUA, GUZTIRA	28 000
10. INTSEKTUAK	AP.17. Egur hilen enborrak eta adarrak metatzen jarraituko da.	--
	1.AC.13. Laginketa zehatzak egingo dira erkidegoaren edota eskualdearen intereseko ornogabeek KBE/HBBEaren eremuan duten presentziari buruzko ezagutza hobetzeko. Laginketa ahalegina, hasiera batean, erkidegoaren intereseko espezieengan egingo da, <i>Coenagrion mercuriale</i> , <i>Lucanus cervus</i> , <i>Rosalia alpina</i> eta <i>Euphydryas aurinia</i> kasu.	25 000
	FUNTSEZKO ELEMENTUA, GUZTIRA	25 000